Ilargia eta landareak agendak 10 urte!

Ospatzeko bertso bazkari berezia

Azpeitian, Azoka Plazan,
2026ko irailaren 26an

Ilustrazioak: **Antton Olariaga**

ARGIA BIZI BARATZEA ELIKA GUNEA

ARGAZKIA: DANI BLANCO / ARGIA CC BY SA

Jakoba Errekondo eta Antton Olariaga, Ilargia eta Landareak agendaren egileak.

Olibondo sakratua

Maddalen Arzallus Antia

-1-
Olibondo sakratua,
bakearen legatua,
beraz, madarikatua…
Egur gogorra izanagatik,
hain zara delikatua…
Aroz aro kolpatua,
adar ezin kokatua,
minez bihurrikatua.

2-
Bizi irauteko grinez,
zailtasunetan ekinez,
eredugarria zinez!
Uda azkena heltzean ere
beti hostaje berdinez…
Nahiz ta egon negar minez,
askatu nahi ta ezinez,
zu gogor plantak eginez!

-3-
Lehorgune ta zartada,
zure hosto zilarkara
dotorezia marka da.
Bizitzan sarri beheko aldeaz
ahaztu egiten gara,
ta zu edozein gisara,
aurpegia ta islada,
ezin ederrago zara.

-4-
Udazkenean fruitua,
altxor txiki ezkutua,
zanpatua, estutua…
Nork aterako probetxu gehien,
nork aterako zukua…
Zure ale lapurtua,
preziatua, gurtua
ura urre bihurtua.

-5-
Mundu bortitz zabalean,
denbora eternalean,
irmo, eginahalean,
Palestinarren herria zaintzen
duzu zure magalean.
Nahiz zauriak azalean,
nahiz hormak lurrazalean,
zuk esperantza alean.

-6-
Bonba, metraila, tiroa,
ez ote duzu giroa
tenperaturaz igoa?
Ez dakit zaren biktima soila
ala zaren motiboa…
Ondo al zaude oliboa?
Ala zure olioa
odol bihurturik doa?

-7-
Amildegi muturrean,
erortzeko beldurrean,
egon arren hil hurrean,
etorkizuna irakurtzen da
zure azal zimurrean.
Badakizu malurrean,
haize gogorren aurrean,
nola sustraitu lurrean.

-8-
Bere labar, bere malkor,
bizitza horren da galkor,
eta gizakia elkor…
Zu, aldiz, beti ixil-ixila,
hain umil ta hain moldakor.
Desagerpena badator,
gu ez gara izango nor
ta zu egongo zara hor.

Apioa, Arbi-apioa, Aza, Aza gorria, Azalorea, Azenarioa, Borraja, Brokolia, Brusela aza, Daikon arbi zuria, Erramolatxa, Errefautxoa, Erromaneskoa, Errukula, Eskarola kizkurra, Eskarola lisoa, Kardua, Kukulua, Mihilua, Perrexila, Piperra, Porrua, Txikoria, Uraza, Zerba eta Ziazerba

Errota zahar maitea

Unai Agirre Goia

Errota zahar maitea...

-1-
Gure mendi tontorrak
burdinez ohituak
aspaldi gurutzeak
zituzten ohikuak
orain haize errotak
zerura doituak...
Garai bakoitzak ditu
bere jaungoikuak!

-2-
Energia garbia
nahi bada harian
guk sortu behar degu
arian-arian...
Errotak omen dira
aukera agian
baina beti besteen
etxe atarian!

-3-
Baserri batzuk bota
ta zuloak presta,
mendi hegiak eten
trabeska-trabeska...
Horrela sortutako
energia festa
berde-berde-berdea
ere igual ezta...

-4-
Ta hiriguneetan
zergatik ez jarri!
Pusketa bana kenduz
horri eta harri.
Baina zeharbidea
hartzen degu sarri:
errazago da sartzen
lau baserritarri.

-5-
Promotore zein diren
ez dezagun ahaztu:
multinazional hoiek
proiektu ta gastu,
politika erosi,
herritarrak nahastu...
Lurra guk jartzen degu
berak aberastu!

-6-
Lehen ahaztuak ta orain
tartako merenge
Erdoizta bailarako
larre eta jende
orain utziak ipar
haizearen mende...
Hau mantendu dutenak
mendirikan-mende.

Errota zahar maitea...

ZOZOA
Zozoa irri egile handi
Zozoari aholku? Esola ureztatu!

Gorosti txiki bat

Maddalen Arzallus Antia

-1-
Gorosti txiki bat
babes beharrean
Kruzeko bideko
azken hondarrean...
Gehienetan geratu
naiz zure aurrean
nire bizitzarekin
segi beharrean.

-2-
Inoiz ustekabean
bizitza da baso
zure mesfidantzaren
kausa da akaso:
sumatzen zaitut nire
urratsetara so
baina hurbilduz gero
zuk beti eraso.

-3-
Hosto bakoitzean
arantzak dauzkazu
inoiz behatz puntak
mindu dizkidazu.
Nire zauri sakonen
odola zara zu
eta halere negua
goxatu didazu.

-4-
Oraindik ez zaizkizu
fruituak gorritu
batzuentzat denborak
bere pausak ditu
landatu ezkeroztik
ez zara handitu
nahiz eta urtero zure
kimuak berritu.

-5-
Mendiko betizu,
ahuntz eta behorrak
berriari hozka
utzirik lehorrak
jaten dituzte zure
hosto iraunkorrak
hola kimatzen zaitu
naturaren obrak.

-6-
Gorosti txikitxoa
xendaren ertzean
harizti magiko bat
duzula atzean.
Lamia kantuz hasi
ohi zait bihotzean
zure bidea hartzen
dudan bakoitzean.

-7-
Arimaren hautsak
dituzu ongarri
landatu zintugun
baten oroigarri.
Noiztik ez gara egon
begira elkarri?
Aspaldian ez dizut
lorerik ekarri.

-8-
Ez, ez dizut ekarri
ez gutun ez lore
denboraren joanean
eman dut amore.
Bizi zaitez zu nigan
ziurrenik hobe...
Gorosti txiki ederra
Agur ta ohore.

"AHABIA, BELTZAGO ETA GOZOAGO."



Txepetxarenak

Pedro Mari Otaño

-1-
Askotan esan izandu dute
gizon ikastun argiak,
nola piztiak izan litezkeen
gure erakuslariak:
erlia da bat aipatzen dana,
oi zer lan harrigarriak
jartzen dituzten gure aurrian
honek eta txingurriak!
Txepetxak, berriz, erakusten du
hainbeste nola haik biak.

-2-
Euskal lurreko txorietan dan
txikitxuena da bera;
gaztain kolore bakarrekua,
nahi bada ez da ederra:
begi argiak, buru xanpala,
moko ttenttia aurrera,
gorputza motxa, hanka laburrak,
xaltokako ibilera;
xalapartako hegalaria
eta kantari ergela.

-3-
Txotx batek aixa jasoko luke
nola karga gutxi duan,
bañan gustatzen zaio jartzia
adar sendoxiaguan;
amildu arren ez leike galdu
dakielako heguan;
bañan arkitzen baldin bada ere
burnizko aldamiuan,
hiru-lau aldiz xanpatutzen du
seguru ote daguan.

-4-
Udaberrian lehendabiziko
kabia txepetxarena
azaldutzen da ta ezaguna
goroldiozkua dena,
arbol gerrian, huntza tartian
du lekurik maitiena,
ta gizon askok ikusitzian
iritxpirian daguena,
osan ohi dute: — zer konfiantza,
txori txar honek dubena!

-5-
Ta edozeinek esan lezake
berari begiratzian,
arretarikan ez dadukala
egiñ leioken gaitzian;
ez-idurian hark kabiari
beste zulua atzian
egiten dio, handik joateko
aurrekua tapatzian;
erakutsiaz pentsa zagula
nola atera sartzian.



"Irailean intxaurra lehen gaztaina gero"

Ilargia eta landareak agendak 10 urte!

azoka.argia.eus

www.bizibaratzea.eus